257. zk.
Bigarren aroa
Uztailak 1
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Argazkiak: Iván Macía

Caser Anaka
San Migel konpainiaren bisita.

7. orrialdea

Argazkiak
Jaietako argazkiak

11. orrialdea

Alardeak 2015

Irunen, zuk Euskaraz!

Herri Jakintza
EUSKALTEGIA
HABE: Titulu Ofizialak
Autoikaskuntza

Sanmartzialetan ere, euskaraz!

·Euskara eskolak maila guztiak
·H.A.B.E. Titulu Ofizialak
·EGA
·Azterketen Prestaketa
·Hizkuntz Eskakizunak
·IVAP ·IRALE

• Guraso taldeak
• Mintza-taldeak

Nafarroa hiribidea, 13 IRUN
943 63 52 66
herrijakintza@gmail.com

GUTUNA

Irundar maiteok,

Ekainaren 18an bukatu zen Betti Gotti elkarteak antolatu zuen euskara ikastaro bat. Ikastaro hori Juan Garzia itzultzaile ezagunak eman du, eta apiriletik ekainera ostegunero bildu gara sei ikasle anitz. Aukeran ikasle gutxi samarrek eman genuen izena puntuazioari eta esaldien antolaerari buruzko ikastaro honetan, eta tokia, beharbada, ez zen egokiena horrelako ikastaro praktiko bat emateko.

Ikastaroa irekita zegoen interesa zuen irundar ororentzat, baina EGA euskaramaila bat gutxienez eduki behar zuen izena eman nahi zuenak. Ikastaroa nahi zuen orori irekita bazegoen ere, kazetariei zuzenduta zegoen, batez ere.

Kazetari profesionalik ez zegoen, baina bildu ginenok arlo desberdinetakoak ginen: euskara-irakasle bi, euskara teknikari bat, magisteritza ikasle bat, besteak beste. Ikastaroa hagitz interesgarria iruditu zait niri, eta Irungo IRUNERO aldizkarian artikulu hau idaztea bururatu zait, praktika moduan.

Artikulu hau BETTI GOTTI elkarteari eskertzeko probestuko dut, eta esateko, hurrengo ikastaro bat antolatuz gero, ikasle gehixeago izan daitezela eta beste toki batean, hala nola Irungo Udal Euskaltegian.

Besterik gabe agurtzen natzaizue, beste bat arte eta ikusi arte.

Plazer bat,

Ainara Maia Urroz

Irun atzo Irun gaur

Mendibil parkea

IUA: 25564

IUA: 38604

IUA: 41034

Mendibil parkearen izenak, zonaldean izan zen orube eta baserri baten toponimoak jasotzen ditu. 1595ekoak dira baserriaren lehen erreferentziak, Miguel de Mendibil Legia jauna jabea zelarik.

Halaber, 1857an Irungo baserri handienetakoa han egon zen.

1910ean zezen plaza bat eraiki zuten, 8.500 pertsonarentzako lekua zuena. Lau hilabete besterik ez zituzten eman eraikitzen, eta 1910eko ekainaren 29an inauguratu zuten. Sortzen zuen kostu handiaren ondorioz 1920an Salvador Etxeandia Gali saldu zioten, eta, honek, zezen plaza bota eta orube horretan Villa Mª Luisa eraiki zuen, gaur egun Musika Kontserbatorioa hartzen duen eraikina (goiko argazkietan ikus daiteke gaur egun eta 1971ean).

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

ALARDE TRADIZIONALA

1

4

2

3

5

6

7

1. - Iñaki Arruabarrena Jenerala, infanteriako konpainiak ikuskatzen 2. - Danborrak Urdanibia plazan. 3. - Konpainia bat Larretxipi kalean behera. 4. - Maialen Eguiazabal, Bentaseko kantinera, San Juan plazan. 5. - Neska talde bat Alardearen hasieraren zain. 6. - Goizeko deskarga San Juan plazan. 7. - Iñaki Arruabarrena Jeneralaren sarrera San Juan plazan.

Argazkiak: Iván Macia

NATUR HOUSE
20 AÑOS CUIDANDO TU BIENESTAR
Eliza kalea, 2 (San Juan). IRUN - 943 62 72 54

MATRIKULA DOHAINIK
DANZA TATIANA
Deitu 943 61 48 89
edo idatzi tatianas@euskalnet.net
UDAN ERE, ASTINDU GORPUTZA!!!
Multi-Gym, Pilates, Sevillanak eta latindar erritmoak
TAILERRAK:
Defentsa pertsonala, makillajea, saltsa eta bachata

1

2

3

4

5

6

1. - Loiola Zuazu, Buenos Amigoseko kantinera. 2, 3. - Soldaduak erredoble eta danborrekin San Juan plazan sartzen. 4. - Neska talde bat Alardea ikusteko prest. 5. - Estatu Nagusiko kideak Udaletxeari begira. 6. - San Migeleko kapitaina eta beste kide batzuk Kale Nagusian. 7. - Iñaki Arruabarrena Jenerala Kale Nagusian. 8. - Noelia Matilla, Belaskoeneako kantinera, Kale Nagusiaren bukaeran. 9. - Belaskoeneako kantineraren ama eta beste lagun batzuk. 10. - Kizkitza Gonzalez, Bandako kantinera. 11. - Txilibituak Kale Nagusia jaisten. 12. - Hatxeroak Kale Nagusian.

7

8

Argazkiak: Iván Macia

9

10

11

12

PAPELERÍA
mayre
Arte Ederrak
Bulego materiala
Eskola materiala
Iparralde hiribidea, 4
IRUN
☎ 943 62 44 27
mayrepaperenda@gmail.com

Rosa Sánchez
Abokatua
Tel 943 632 740
Telekopia: 943 639 793
rosasanchez@despachoprofesional.net

Eskarne Ruiz de Arbulo
Zuzenbidean lizentziatua
Epaitegietako prokuradorea
Tel 943 635 073
Telekopia: 943 622 314
eskarne@eskarneprocuradora.com

Karrika Nagusia, 25, behe. IRUN

1

2

3

4

5

6

Argazkiak: Iván Macia

7

8

1. - Lorena Etxepare, Santiagoko kantinera, Foruen karrikan. 2. - Nekane Franco, Behobiako kantinera, Foruen karrikan. 3. - Neska bat Artilleriako jantzia daraman ume batekin. 4. - Konpainiak Junkal plazatxora iristen. 5. - Naroa Etxeberria, Bidasoako kantinera Irungo bandera batekin. 6. - Konpainiak San Juan Plazatik ateratzen. 7. -Hatxero bat Kale Nagusia jaitsi ondoren. 8. - Erredobleak Arbelaitz jauregiaren ondotik pasatzen.

LAUBURU Estudio
Kreatiboa!
Kamiseta Pertsonalizatuak
Biniloak Ibilgailuetarako, etxerako; PEGATAK!
Diseinua logotipoak, publizitatea eta Web
lauburuestudio.com
López de Becerra 4. Pio XII - Irun | 943 492 943

eder
Ileapaindegia, estetika eta produktu salmenta
Pio XII, 1 IRUN
943 01 37 82
9:30 - 13:00
16:00 - 20:00
Astelehen goizean, itxita

Tagore Susperregui
Peluquería mixta - Ileapaindegi mistoa
GORA SAN MARTZIAL
C/ Piketazaharra, 28 Oinaurre. IRUN Tlfn: 943 24 69 41

Sanmartzialak Caser Anakan

Sanmartzialak urtero ospatzen dituzte Caser Anakan. Ekainaren 1ean Maite Elorza aurtengo kantinera hautatu zuten lankide, familia eta egoiliarrek, sei hautagairen artean. Horietatik, gazteenak 72 urte ditu eta 91 zaharrenak. Maite hondarribiarra da eta 87 urte ditu. 1948. urtean Kosta konpainiako kantinera izan zen. Bestalde, Antonio Gil izan da 2015eko Sarjentua Caser Anakan.

Argazkietan: Paco Almendres San Migeleko kapitainaren, Maider Garcia San Migeleko kantineraren eta San Migel konpainiako kideen bisita.

Hilabete osoan zehar zenbait ekitaldi antolatu dituzte: Kantineraren hautaketa, Errenteriako emakumeen dantza, San Migel konpainiaren entsegua, San Juan sua, Irungo bideoen proiekzioak, Kantinerari omenaldia, Anaka konpainiaren entsegua, Sanmartzialetako arma-ikustatzea, sanmartzialetako bazkari berezia eta Alardeko bideoen emanaldia.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

ALARDE PUBLIKOA

2

1

3

4

5

6

7

8

1. - Carla Pavesi, Danborradako kantinera. 2. - Inma Landa Jenerala San Juan plazan. 3. - Jokin Otegi Kaporalburua hatxeroekin San Martzial kalea igotzen. 4. - Lagun talde bat Alardea ikusten. 5. - Txilibituak San Juan plazan sartzen. 6. - Goizeko deskarga. 7. - Zalditeria San Juan plazan. 8. - Miriam Finch, Lapitzeko kantinera goizean elizara bidean. 9. - Eskopetariak elizara bidean desfilatzen.

Konpainia bateko eskopetariak Eliza kalean desfilatzen.

Argazkiak: Iván Macia

9. - Alardea ikusten. 10. - Artilleriako kideak Kale Nagusia jaitsi ondoren. 11. - Zalditeriako kide bat San Juan plazatik ateratzen. 12. - Maialen Beltran Ama Xantalen konpainiako kantinera, Kale Nagusian. 13. - Soldaduak erredoblea jotzen. 14. - Maider Resende, Bidasoa konpainiako kantinera. 15. - Konpainia osoa Kale nagusia jaisten.

Droneen erabileran aitzindari izan da Bidasoa GLHBI

2011n hasi ziren Irungo institutuan tresna hegalari telegidatuekin lanean

Helburu militarretatik, erabilpen zibilera egin dute jauzi droneek. Teknologiaren munduan ohikoa den bidea jarraitu dute. Gaur egun, industrian, nekazaritzan edo beste hainbat sektoretan tresna erabilgarriak dira. Gainera, hurrengo urteetan droneek bilakaera handia izango dutela aurreikusten dute adituek. Hori dela eta, Bidasoa Lanbide Heziketa Institutuan lau urte daramatzate dagoeneko droneekin lanean

Ezkerreko argazkian, Jorge Arévalo Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordea, eta Alberto Arranz institutuko irakaslea.

Drone bat eskuratzen lehena izan zen Bidasoa GLHBI, estatuko institutu guztien artean. 2011n izan zen. Lehenago, hegazkin txikiak erabili izan zituzten fotogrametria lantzeko. Baina "garestiegi" ateratzen zela gogoratu du Alberto Arranz institutuko irakasleak. Gaur egun, sei drone dituzte Bidasoan, eta eskaintzen dituzten gradu ezberdinetan erabiltzen dituzte. "Oso esparru zabala hartzen dute droneek. Haien erabilera, garapena, arlo elektronikoa, moldatzea edo pertsonalizatzea landu daitezke, besteak beste", azaldu du Alberto Arranzek.

Berritzaile izan zen Bidasoa 2011n, eta oraindik ere, abantaila du inguruko beste irakaskuntza zentroekiko. Askotan, baita enpresekiko ere. "Ikasleak praktikak egitera iristen dira enpresetara, eta batzuetan arduradunek baino ezagutza handiagoa izaten dute droneen inguruan. Hori onuragarria da enpresentzat", argitu du Arranzek. Droneen erabileran sakondu izan dute Bidasoan, batez ere. Dena den, beste pauso batzuk ematen hasi direla nabarmendu du Alberto Arranz irakasleak: "Diseinu mekanikoko zikloan, droneetarako piezak sortzen hasi dira, 3D inpresorekin". Erronka handia da, orain arte, Alemaniatik edo Estatu Batuetatik ekarri behar izan dutelako materiala.

Droneen inguruko jardunaldiak

Droneekin lan egitea Bidasoa GLHBIren ezaugarri bereizgarrietako bat da, gaur egun. Gaiaren ezagutza zabaltzeko eta jasotzeko asmoz, jardunaldi batzuk antolatu zituzten institutuko arduradunek maiatzean, ikasturtearen amaieran. Hizlarien artean egon zen Jorge Arévalo Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordea. Droneen erabilera erregulatzearen beharra azpimarratu zuen: "Droneak legedia baino azkarrago garatzen ari dira. Baina erregulazioaren bidez segurtasuna bermatzea ezinbestekoa da, inolako astakeriarik gerta ez dadin". Irungo Bidasoa Institutua, behintzat, ez da atzean gelditu. Droneen erritmo bizkorrean aurrera egitea lortu du.

Literatur sorkuntzako uzta jaso dute Txingudi BHIn

Literatur sariak eman dizkiete Txingudi BHIko ikasleei, 2015eko Ikastola Egunean. Hizkuntza Normalkuntza Batzordeak sorkuntza bultzatzeko lehiaketak antolatzen ditu urte osoan zehar. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatzitako lanak saritzen dituzte. "Aitortza egiten diegu idazten aritzen direnei, ikus dezaten baliotsuak direla. Pentsatzen dugu motibazioa edo animoa emango diela", azaldu du Edu Zabala irakasleak. Saritutako lanak, liburu batean biltzen dituzte, Guraso Elkartearen diru laguntzari esker. Edu Zabalak gogoratu du, askotan, ikasleek egiten dituzten lanak galdu egiten direla: "Uste baino gauza gehiago egiten dira, baina normalean, ez dira inon gordetzen". Gaur egun, sariaz gain, haien lanak biltzen dituen liburua jasotzen dute Txingudiko sortzaile gazteek.

IRUNGO JAIAK 2015

Betti Gotti Euskara Kultur Elkarteak Herri Bazkaria antolatu zuen. Argazkietan ikus daitezke Herri Olinpiadak, Batukada eta “Peña Poteo” txaranga Ficobara bidean, Herri Bazkaria, musika emanaldia, eta Irungo erdigunera bueltatzeko kalejira, Elektropatxarangarekin.

Juanma Garate txirrindulari ohia izan zen San Juan bezperan jaiei Agurra eman ziena. Goiko argazkian, Kemen dantza taldeko dantzariak.

Bidasoako erraldoiek Gibeletako Eguneko Zentroan bisita egin zuten.

AG
Amaia Goena
Mediku Estomatologoa

ORTODONTZIAN ESPEZIALISTA

27 URTEKO ESPERIENTZIA

- Haurrak - Ohiko ortodontzia
- Nerabeak - Ortodontzia ikustezina
- Helduak - Kirurgia

TEKNIKA MODERNOENAK
Irripar polita bizitza guztirako!

www.amaiagoenaortodoncia.com
Kolon ibilbidea, 40 - IRUN - 943 61 47 45

Txingudi BHIko Literatur lehiaketa

Arane Oieregi Fontao - 4. Maila

Aipamen berezia

ASMA Ipuin zati batetik abiatuta ikasleak berea asmatu behar du.

Txuku-txuku-traka-traka... burdin kirrinka, trena balaztatzen hasi da burdinbidea zarramazkatuz. Ireki dira ateak. Takoi hotsa, denak presaka, galtza luze italiarrak, Lacoste, Liberto, gizon dotore baten zapata marroi ilunak, lehenengo klasea, agian? Denak erdi lasterka, atzetik akuilua ziztaka edukiko balute bezala, erne! Tupust egin eta ia lurrera erori da andere apaindu bat, mugikor baten oihua, baina inork zirkinik ez...

Emakume hura Tamako zen, Japoniatik etorritako etorkin bat. Bere ahizpa Ankorekin telefonoz hitz egiten ari zen, baina bat-batean, oihu bat entzun zuen telefonoaren beste aldetik. Hori entzundakoan, Tamako lurrera erori zen, bere ahizpa txikiaz kezkaturik.

Baina, inork ez zion altxatzen lagundu, New Yorkeko metro izugarrian. Anko berarekin batera bizi zen, horrexegatik, korrika joan zen Tamako bere etxera. Hara iritsi zenenan, dena lehen utzi zuen bezala zegoen, baina Anko ez zegoen han. Eta berak bazekien Ankok, bere kabuz, ezin zuela joan, igande goiza zelako eta gaztea zenez, etxean giltzapetuta utzi zuelako lanera zihoan bitartean, pentsatu zuen Tamakok bere artean. Gela guztiak miatu zituen badaezpada, eta logelan topatu zuen bere ahizpa kuttuna, armairuaren aurrean, lurrean etzanda eta konortea galdurik. 112-ra deitu zuen eta sendagileek Ankok lasaitasuna behar zuela ondorioztatu zuten. Hau lokartu zenean, Tamako pentsatzen hasi zen; ireki zena? Ankok ez zekien hori, baina ikaratu egin bazen? Ez nuen sinetsi nahi, baina orain badakit zergatik saldu ziguten etxea hain merke. Bost egun geroago, etxea Japoniar erara bedeinkatu ondoren, Japoniara itzuli ziren bi ahizpak, eta gobernuak New Yorkeko etxea betirako itxi zuen.

AHOZ AHOKO DIGITALA

Negozio batean, bezero guztiek dute garrantzia. 2.0 bezeroak existitzen direnetik, garrantzia bikoitza.

Zoritxarreko ideia izan nuen atzo. Ezagutzen ez nuen jatetxe batetara joan nintzen, familiako ospakizun baterako. Oso txarra izan zen esperientzia: bezeroari arreta eskasa, janari urria, oso garestia... Sekula ez bueltatzeko modukoa.

Etxera itzultzerakoan, Facebook-en esperientzia azaltzea bururatu zitzaidan. Nire lagunei jatetxeko itxaronaldi luzeen berri ematea zen helburua. Eta bide batez, barrenak hustea.

Ordu gutxi batzuen buruan, 30 “Atsegin dut” ohar eta 12 iruzkin zituen Facebook-eko egoeraren eguneratzeak. Beraz, lagunen multzo handi samar batek erabaki zuen udan jatetxe horretara ez hurbiltzea. Gainera, aurkako iritzia emateko prest egongo ziren, norbaitek galdetuz gero.

Gaur egun, ostalaritzaren mundua baldintzatzen dute Tripadvisor moduko iritzien web guneek. Bospasei iritzi txar edukitzeak bezeroen jaitsiera eragin dezake. Negozioa txikia baldin bada, baita haren itxiera ere. Oso ikusgai daude gaur egun jatetxeak eta hotelak. Inoiz baino exijentzia maila handiagoari egin behar diote aurre.

Horrek gehiegikeria eta bidegabekeriaren bat edo beste eragiten du, jakina. Baina orokorrean, kalitateak beti izaten du saria. 2.0 iritziek nahiko ondo irudikatu ohi dute errealitatea.

Berriki, ikastaro bateko ikasle batek (merkataria da), komentatu dit arlo negatiboei buruz idazteko ohitura handiagoa dugula. Beharbada garai batean hala izango zen. Baina ostalaritzaren kasuan, esperientzia onak ere elkarbanatzen dira gaur egun, txarrak baino gehiago, beharbada. Lan ona egiten duten negozioek azkar jasotzen dituzte sariak, sare sozialetako iruzkinen bidez. Bezeroek komentatzeko ohitura dute, bertan egon direla eta platerkada polita eskaini dietela erakusteko besterik ez bada ere.

Emaztearekin bisitatu nuen jatetxe horrek aukera ona galdu zuen, hurbil bizi naizelako, eta lagunei bikain bazkaldu nuela esan ahal izan nielako.

Ez naiz kritiko gastronomikoa, ezta Facebook-eko pertsonarik ezagunena ere. Baina ahoz ahoko digitala geldiezina da. Txarrerako eta onerako.

Pablo Moratinos
Marketing Online-ko aholkularia.
3yMedia Comunicación Digital

TABERNA - JATETXEA
MARIÑO
GALIZIAKO ESPEZIALITATEAK
- Banketeak
- Jaunartzeak
- Despedidak
ATSEDENALDIA: Astelehen eta ostegun arratsaldean
Zubelzu, 6 - IRUN - Tel 943 61 50 01

ARGITZE ZENTROA
ESTIMULAZIOA
-Narriadura kognitiboa gelditzea dementzia kasuetan
- Errehabilitazio kognitiboa hainbat kasutan:
Iktusa, traumatismoak, tumoreak, anoxia...
- Adinarekin lotutako narriadura tipikoaren prebentzioa
TERAPIAK: Animaliez lagundutako terapiak, barreterapia eta musikoterapia
EKINTZAK: Soinketa, zineforuma, mahai-jokoak, esku-lanak eta abar
PSIKOLOGOEN ELKARGOKIDE
Santiago, 51
IRUN
635 703055
943 051227

San Vicente Paul HH2

APUNTO
centro fitness

URTE OSOA IREKIA

Amaia Camarero Susperregui
Lopez de Becerra kalea 4, 20302 Irún

www.apuntofitness.com

MATRIKULA DOHAIN
Ordutegi malgua

646.680.600

GIRABIRA #2. ZIRKOA

Zer? Musika, malabarismoa, oreka-jokoak, piknika, etab. egingo dira.

Noiz? Ekainak 11

Ordua? 12:00etatik 17:00etara.

Non? Soroxarta parkean.

Prezioa? Doako sarrera.

Informazio gehiago: http://girabira.net/portfolio/2-zirko-2/

UDAN IRUNGO KIROLDEGIETAN

Zer? Igerilekua, Fitness aretoa (14 urtetik aurrera), turkiar bainua, spa (16tik aurrera). Kantxa edo pilotaleku bat alokatzeko aukera, eta ikastaro asko egiteko aukera.

Prezioa? 12 eta 22 urte bitarteko entzat (biak barne), abonatu udako hilabeteetarako eta ez ezazu matrikularik ordaindu.

Informazio gehiago:
- Artaleku: 943 50 57 recepcion.kirolak@irun.org
- Azken portu: 943 50 57 azkenportu.kirolak@irun.org.

"EUSKARAZ BIZI NAHI DUT" FILM LABURREN LEHIAKETA

Zer? Film labur lehiaketa honen gai nagusia euskaraz bizitzeko nahia da. Lehiaketa Euskara Gizarteen Kontseiluak antolatu du. Lanik onenak Donostia Zinemaldian proiektatuko dira.

Sariak?
Profesionalen atala:
1.go saria: 2.000 euro
2. saria: 1.000 euro
3. saria: 500 euro

Amateurren atala:
1.go saria: 1.000 euro
2. saria: 500 euro
3. saria: 250 euro

Epea? Abuztuak 24.

Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko? info@eus-karazbizinahidut.org

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2-behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

GAZTELEKUKO JARDUERAK

PUTZUAK (Irun)

Noiz? Uztailak 3.

Norentzat? 12 - 17 urte

Prezioa? Dohainik

PADDLE SURF (Hondarribia)

Noiz? Uztailak 8.

Norentzat? 12 - 25 urte

Prezioa? 5 euro

SURFA HENDAIAN

Noiz? Uztailak 10.

Norentzat? 12 - 25 urte

Prezioa? 10 euro

informazio gehiago: **www.irun.org/gazteleku**

UDAKO ORDUTEGIA IGAZTEN

UZTAILEAN, ABUZTUAN eta IRAILEAN, Gazte Informazio Bulegoa udako ordutegian egongo da zabalik. 10:00etatik 14:00 etara astelehenetik ostiralera.

Hori bai, gogoan hartu ateak interneten egunero-egunero 24 orduz irekita daudela!

www.irun.org/igazte

"BIDASOAKO MAISUAK. INSPIRAZIOA ETA ARDURA"

Zer? "Bidasoako Maisuak. Inspirazioa eta ardura" erakusketak, Bidasoako margolari ospetsuenen lanak bilduko ditu. .

Noiz? Uztailaren 17tik, abuztuaren 30era arte.

Non? Erakusketa Amaia K.Z.n izango da.

Ordutegiak?

- Asteartetik ostiralera: 18:30-21:00

- Larunbatetan: 12:00-14:00 eta 18:30-21:00

- Igandeetan eta jai egunetan: 12:00-14:00

Noren obrak izango dira? Darío De Regoyos y Valdés , José Salis Camino, Ricardo Baroja y Nessi, Vicente Berrueta Iturralde, Javier Ciga Echandi, Francisco Echenique Anchorena, Daniel Vázquez Díaz, Bernardino Bienabe Artia, Gaspar Montes Iturrioz, Juan Larramendi Arburua, Menchu Gal Orendain, Elías Garralda Alzugaray, Enrique Albizu Perurena, José María Rezola, José Gracenea Aguirregomezcorta, José María Apezetxea Fagoaga, Ana Mari Marín, José Mensuro ´Mensu´, Amaia Hernandorena Albea, Jesús Montes Iribarren, Javier Sagarzazu Garaikoetxea, Juan Carlos Olaetxea, Antonio Moreno Bergareche, Tomás Sobrino Habans, Xabier Soubelet, Ignacio Larra, Kepa Arizmendi Bereau, Juan Carlos Pikabea Zubiri.

Ekainak 3

Zer? Martindozenea Gaztelekutik irteera putzuetara.

Non? Martindozenea Gaztelekuan.

Ordua? 15:30etatik 20:30etara.

Prezioa? Doako sarrera.

Izena emateko?
-iGazte bulegoan (Foru Karrika 2 behea).
-Telefonoz: 943636826.
-Emailez: gazteleku@irun.org

Ekainak 9

Zer? Eurohiriko sare berdea eta urdina Redvert proiktuaren aurkezpena eta eztabaidako jardunaldia.

Non? Ficoban.

Ordua? 9:00etatik 14:00etara.

Izena emateko? 943667788

Ekainak 11

Zer? Girabiraren bigarren ekitaldian ZIRKOA izango da gaia nagusia.

Non? Soroxarta parkean.

Ordua? 12:00etatik 17:00etara.

Prezioa? Doako Sarrera

Informazio gehiago: http://girabira.net/portfolio/2-zirko-2/

GIRA BIRA

www.girabira.net

Ekainak 17

Zer? "Moda museoan" disenatzaileen I. Lehiaketa. Moda greko erromatarrean inspiratutako diseinuetan oinarritzen da. Ekimena Dies Oiassonis Irungo VI. Erromatar Jaialdiaren egitarauan eta Moda Museoan proiektuaren baitan dago.

Non? Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua? 20:00etan.

Izen ematea eta informazioa: irun.org/oiasso

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 943 628 333
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, bereguin elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04297 109.000 €

Pisua salgai Hendaia
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, beroqailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 80 m², 3 gela, bainugela, egongela bidmiarekin, sukaldea, balkoia, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Zaharberritua.
Ref: 04333 155.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 45 m², 2 gela, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, balkoia, berokuntza eta igogailua. 2000ko eraikina.
Ref: 04356 140.000 €

Pisua salgai Irun Palmera
Azalera 65 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04299 248.000 €

Pisua salgai Hendaia Erdian
Azalera 90 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, berokuntza. Hirugarren pisua, igogailurik gabe.
Ref: 04345 180.000 €

Ebxea salgai Hendaia-Behobie
Azalera 194 m², 2.000 m²ko terrenoa, 4 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza, biltegia, berokuntza, jardina, eguzkitsua. Garajea barne.
Ref: 04349 550.000 €

Lokala salgai Irun San Juan
Azalera 40 m², komuna eta eskaparate polita.
PRIMERAKO AUKERA!!
Ref: 04305 210.000 €

Lokala salgai Irun Urdanibia plazan
Azalera 25 m², Obra bertan.
Ref: 04358 83.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

MATERIALES DE **ITURRIA** CONSTRUCCIÓN

AUKERA BATEN BILA?

STOCK KANPORA!

**ITURRIAN ESPOSIZIOAK BERRTU NAHIAN
GURE STOCK GUZTIA KENTZEKOTAN GAUDE.
HORREGATIK 80% BEHERAPENAK AURKITUKO DITUZU
ALTZARI ETA MAMPARA ASKOTAN**



INFORMAZIO GEHIAGORAKO

WWW.ITURRIA.NET

943633188

**POL.ARRETXE UGALDE
(VENTAS) IRUN**